

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

834

6/2021 DEKRETUA, otsailaren 10ekoa, lehendakariarena, zeinaren bidez xedatzen baita Oinarritzko Ikerketa eta Bikaintasun Zentroen (BERC) ordezkari gisa Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua osatuko duen pertsona izendatzea.

Apirilaren 8ko 49/2014 Dekretuaren bidez, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua arautu zen, eta haren osaera aldatu egin zen otsailaren 9ko 58/2021 Dekretuaren bidez; hala, pertsona bat sartu zen Oinarritzko Ikerketa eta Bikaintasun Zentroen (BERC) ordezkari gisa, lehendakariak izendatuta.

Ondorioz, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Ricardo Diez Muiño jauna –Donostia International Physics Center-eko (DIPC) zuzendaria da– izendatzea, Oinarritzko Ikerketa eta Bikaintasun Zentroen (BERC) ordezkari gisa.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko otsailaren 10ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.